Biltzar Nagusien gehiengoa zerga iruzurraren aurkako borrokaren alde agertu da eta askotan Arabako Foru Aldundiari eskatu dio neurri gehiago jar ditzala iruzurrari aurre egiteko. Eusko Legebiltzarrean ere horrela gertatu da. Fiskalitateari buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako ebazpenen artean, 23. ebazpenak Foru Aldundiei eskatzen die zerga iruzurraren aurka egiten dituzten ahaleginak handitzen jarrai ditzaten, zergak saihesteko egoerak gutxitu edo ezabatzeko; egoera horiek desberdintasunak areagotzen baitituzte eta gure zerga sistemaren ezaugarri diren elkartasun, berdintasun eta progresibotasun printzipioak urratzen baitituzte.

Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetza Fiskalaren 3/1989 Legeak, maiatzaren 30ekoak, zerga iruzurra antzemateko elkarrekiko ikuskaritza planak jaso ditu. Helburu hori errazago lor daiteke Foru Ogasunetan diren zergadunei buruzko datuak lagaz gero. Hori delaeta, Zergaren Foru Arauan ondokoa sartu beharra dago: zerga datuak lagatzea elkarrekin ikuskaritza planak burutzeko. Iruzurrari aurka egiteko borroka areagotzen lagunduko duen neurri bat da, ezen administrazioen artean zerga datuak lagaz iruzurrari modu eraginkorragoan egin ahal izango zaio aurre.

Artikulu bakarra. Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren aldaketa.

Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 92. artikuluaren 1. ataleko b) hizkia aldatu da eta honela idatzita geldituko da:

b) Beste zerga administrazio batzuekin lankidetzan aritzea bere eskumenen eremuan zerga betebeharrak betearazteko, baita Zerga Koordinaziorako Organoarekin ere, Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetza Fiskaleko maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak aurreikusitakoaren arabera, sektore, talde eta enpresen inguruko elkarrekiko ikuskaritza planak burutze aldera, zerga iruzurraren aurkako borroka areagotzeko aipatutako legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin ados.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea.

Xedapen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari, xedapen hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak, batez ere informatikako mekanismo eta erremintekin zerikusia dutenak, burutzeko baimena ematen zaio.

Hirugarrena. Arabako Biltzar Nagusiei informazioa ematea.

Urtean behin, zerga administrazioan eskumena duen foru sailak beste zerga administrazio batzuekin eta Zerga Koordinaziorako Organoarekin izan duen lankidetzaren inguruko txostena igorriko die Arabako Biltzar Nagusiei.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 28a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

La lucha contra el Fraude Fiscal ha obtenido un respaldo mayoritario en las Juntas Generales de Álava instando en numerosas ocasiones a la Diputación Foral de Álava a incrementar las medidas destinadas a combatir el fraude; y también en el Parlamento Vasco donde en las resoluciones adoptadas en el Pleno monográfico sobre fiscalidad en su resolución 23 se insta a las Diputaciones Forales a que sigan intensificando los esfuerzos que realizan en la lucha contra el fraude fiscal, para reducir y eliminar las situaciones de evasión fiscal, que incrementan la desigualdad y quiebran los principios de solidaridad, equidad y progresividad que caracterizan nuestro sistema tributario.

La Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, contempla planes de inspección conjunta para detectar el fraude fiscal. Este objetivo es más fácil de conseguir si se ceden los datos de los contribuyentes que obran en las diferentes Haciendas Forales. Por este motivo, es necesario introducir en la Norma Foral Tributaria la cesión de datos fiscales para ejecutar planes de inspección conjunta. Es una medida para colaborar a la intensificación de la lucha contra el fraude, porque la cesión de datos fiscales entre administraciones sirve para combatir el fraude de una forma más eficaz.

Artículo Único. Modificación de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Se modifica la letra b) del apartado 1 del artículo 92 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, que queda redactada de la siguiente forma:

b) La colaboración con otras Administraciones tributarias a efectos del cumplimiento de obligaciones fiscales en el ámbito de sus competencias, así como con el Órgano de Coordinación Tributaria, previsto en la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, a los efectos de la realización de los planes de inspección conjunta sobre sectores, colectivos y empresas según lo contemplado en el artículo 13 de la Ley citada para intensificar la lucha contra el fraude fiscal.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

La presente disposición entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición especialmente aquellas relacionadas con los mecanismos y herramientas informáticas.

Tercera. Información a las Juntas Generales de Álava

De manera anual, por parte del departamento foral competente en administración tributaria se remitirá a las Juntas Generales de Álava un informe comprensivo de la colaboración con otras administraciones tributarias y con el Órgano de Coordinación Tributaria.

Vitoria-Gasteiz, 28 de enero de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

532

**5/2013 Foru Araua, urtarrilaren 28koa, bingo elektronikoaren joko modalitatean zergak arautzen dituena.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko urtarrilaren 28an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

5/2013 Foru Araua, urtarrilaren 28koa, bingo elektronikoaren joko modalitatean zergak arautzen dituena.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartu zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, jokoaren gaineko zergak araudi autonomoko zerga itunduak dira, hura Euskal Autonomia Erkidegoan baimendu behar denean, eta Estatuak une bakoitzean finkatutako araudi berbera aplikatuko da zerga gaiari eta subjektu pasiboari dagokienez.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

532

**Norma Foral 5/2013, de 28 de enero, de regulación de la tributación de la modalidad del juego del bingo electrónico.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 28 de enero de 2013, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 5/2013, de 28 de enero, de regulación de la tributación de la modalidad del juego del bingo electrónico.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Conforme a lo dispuesto en la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, los tributos que recaen sobre el juego tienen el carácter de tributos concertados de normativa autónoma cuando su autorización deba realizarse en el País Vasco, aplicándose la misma normativa que la establecida en cada momento por el Estado en lo que se refiere al hecho imponible y sujeto pasivo.

Jokoaren zergabidearen inguruko Arabako araudia otsailaren 14ko 5/2005 Foru Arauan jasota dago. Horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen da. Bingo jokoaren kasuan, zerga hori ordainarazteko eskumena Arabako Foru Aldundiari dagokio, zerga gaia Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen bada eta joko jarduerak egiten diren aretoa, lokala edo establezimendua Araban kokaturik badago.

Eusko Jaurlaritzaren Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren 2012ko martxoaren 6ko ebazpenaren bitartez, baimena eman zen eratorritako bingoari buruz (bingo elektronikoaren modalitatean) proba komertziala egiteko, lau hilabeteko aldiaz. Epe hori beste hilabetez luzatu zen, Zuzendaritza beraren ekainaren 26ko ebazpenaren bidez.

Esandako epea bukatu denez gero, premia bizikoa da zerga araudia aldatzea, bertan jaso daitezen bingo elektronikoa eta ohiko bingoa bereizten dituzten ezaugarriak. Ezaugarri hauek direla eta, gomendagarria da zerga oinarriak kalkulatzeko modu desberdinak erabiltzea eta bi joko sistemetan zerga tasa desberdinak aplikatzea, halako moduan non bingo elektronikoaren jokoa egiten den areto edo lokalen titularrek, zergaren subjektu pasiboek, dagozkien zerga zorren autolikidazioa eta sarrera egin ditzaten.

Artikulu bakarra. Arabako Lurralde Historikoan jokoaren gaineko zerga arautzen duen foru arauaren aldakuntza.

Ondoko aldaketa hauek sartzen dira Arabako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 14ko 5/2005 Foru Arauan:

Bat. 3. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“3. artikulua. Zerga gaia.

Jokoaren gaineko Zergaren zerga gaia honako hau da: joko jarduera hauek baimentzea, antolatzea edo egitea, berdin du haiek egiten diren bidea, eskuzkoa, teknikoa, telematikoa edo interaktiboa:

– Kasino jokoak.
– Bingoa, bingo elektronikoaren modalitatea barne hartuta.
– Apustuak.
– Txartelak.
– Joko makinak.
– Zozketak.
– Tonbolak.
– Ausazko konbinazioak.
– Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoaren barruan jasotako beste edozein joko.”

Bi. 7. artikuluko 2. idatz zatiko b) letra aldatzen da. Honela egongo da idatzita aurrerantzean:

“b) Bingo jokoan, zerga oinarria jokalariek dagozkien kartoien erosketagatik ordaindutakoaren guztirako batura izango da, inolako kenkaririk egin gabe. Bingo elektronikoaren joko modalitatean, zerga oinarria hauxe izango da: jokatutako diru kopuruaren eta sarietara bideratutako kopuruaren arteko aldea, jokoa egiten den areto edo lokal bakoitzari egotzi ahal zaiona.”

Hiru. 8.bis artikulua aldatzen da. Honela idatzita egongo da aurrerantzean:

“8.bis artikulua. Bingo jokoari aplikatu ahal zaizkion zerga tasak.

Bingo jokoaren zerga tasa ehuneko 18,4 izango da. Bingo elektronikoaren joko modalitatean, zerga tasa ehuneko 25 izango da.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Foru Arau hau ALHAOn argitara ematen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2012ko abuztuaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 28a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

La normativa alavesa sobre la tributación del juego está recogida en la Norma Foral 5/2005, de 14 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Álava, siendo competente para su exacción la Diputación Foral de Álava, en el caso del Juego del Bingo, cuando realizándose el hecho imponible en el País Vasco, la sala, local o establecimiento en el que se efectúen las actividades de juego esté situado en Álava.

Mediante resolución de 6 de marzo de 2012, de la Dirección de Administración Electoral, Juegos y Espectáculos del Gobierno Vasco se autorizó la realización de una prueba comercial sobre bingo derivado, en su modalidad de bingo electrónico, por un período de cuatro meses, prorrogado mediante resolución de la misma Dirección de 26 de junio, por un mes adicional.

Ante la finalización de dicho plazo, se impone con carácter urgente la modificación de la normativa tributaria, de forma que queden contempladas en la misma las especificidades que distinguen al bingo electrónico del tradicional, que aconsejan distintas formas de cálculo de bases imponibles y aplicación de tipos impositivos diferentes en ambos sistemas de juego, de forma que los titulares de las salas o locales en que se celebra el juego del bingo electrónico, sujetos pasivos del tributo, procedan a la autoliquidación e ingreso de las deudas tributarias correspondientes.

Artículo Único. Modificación de la Norma Foral por la que se regula el tributo sobre el juego en el Territorio Histórico de Álava.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 5/2005, de 14 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Álava:

Uno. Se modifica el artículo 3, que queda redactada de la siguiente forma:

“Artículo 3. Hecho imponible.

Constituye el hecho imponible del Tributo sobre el Juego la autorización, organización o celebración de las siguientes actividades de juego cualquiera que sea el medio manual, técnico, telemático o interactivo a través del que se realicen:

– Juegos de casino.
– Bingo, incluida la modalidad de bingo electrónico.
– Apuestas.
– Boletos.
– Máquinas de juego.
– Rifas.
– Tómbolas.
– Combinaciones aleatorias.
– Cualquier otro juego incluido en el Catálogo de Juegos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.”

Dos. Se modifica la letra b) del apartado dos del artículo 7, que queda redactada de la siguiente forma:

“b) En el juego del bingo, la base imponible vendrá constituida por la suma total de lo satisfecho por los jugadores por la adquisición de los correspondientes cartones, sin ninguna deducción. En la modalidad del juego del bingo electrónico, la base imponible vendrá constituida por la diferencia entre el importe jugado y la cantidad destinada a premios, que resulte imputable a cada una de las salas o locales en que se desarrolle el mismo.”

Tres. Se modifica el artículo 8 bis, que queda redactada de la siguiente forma:

“Artículo 8 bis. Tipos tributarios aplicables al juego del bingo.

El tipo tributario del juego del bingo será el 18,4 por ciento. En la modalidad del juego del bingo electrónico el tipo tributario será del 25 por ciento.”

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

La presente Norma Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOTHA, y producirá efectos a partir del 15 de agosto de 2012.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Vitoria-Gasteiz, 28 de enero de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.